



numerikoaren INDUSTRIAK eta ZERBITZUAK



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE
ELKARGOIA

Euskal Hirigune Elkargoa dohatu da Garapen Ekonomikorako Eskema anbiziotsu batez, ekonomia produktibo, iraunkor eta orekatu bat sustatzeko. Garapen Ekonomikorako Eskema horrek zehazten du garapen ekonomiko alorreko ekintza publikoa, lurralde osoan. Garapen Ekonomikorako Eskema oinarritzen da sail historikoetan, egituratzaileetan eta garatzeko ahalmen handia dutenetan.

Historian zehar lurraldean erroztaturik izan diren numerikoaren industria eta zerbitzuei eskainia den bide orri horrek definitzen du Euskal Hirigune Elkargoaren numeriko iraunkor eta berritzaile baten aldeko ekintza.

“

1

Retrouvez la Feuille de route des industries et services du numérique en basque en ligne sur

communaute-paysbasque.fr

Aurki ezazu Numerikoaren industria eta zerbitzuei eskainia den bide orria

communaute-paysbasque.fr
webgunean



Numerikoa non-nahi dago; bai gure bizi pertsonaletan, bai eta ere gure bizi profesionaletan. Ipar Euskal Herrian, gure lurraldean, hemen berean, ehun enpresa baino gehiagok ekoizten dute numeriko hori: kodea, algoritmoak, programak eta konektatutako objektuak. Enpresa horiek ekonomia berri horren izaera produktiboa erakusten dute; eta ekonomia hori, nahiz eta immateriala izan, garapen ekonomikorako gure politika publikoaren parte da. Gaur egun, ingurumen eta gizarte mailan jokoan dena ikusirik, eta eragile teknologiko multinazionalen nagusitasuna kontuan harturik, numerikoa bidegurutze batean dago. Ipar Euskal Herrian, jakin badakigu numerikoa eragile nabarmena izan daitekeela gure baliabideak zaintzeko, gure bizimoduak hobetzeko eta etorkizun oneko sektoreak sostengatzeko, hala nola osasuna, kultura- eta sorkuntza-industriak, eraikuntza iraunkorra edo etorkizuneko industria. Bide orri estrategiko hau prestatu dugu, bi helburu betetzeko aldi berean: batetik, numerikoaren tokiko adarra garatzea, eta, bestetik, numerikoaren garapen-eredua berritzea, numeriko arduratsuago batera buruz joanez, hots, trantsizioen zerbitzura dagoen, neurritasun handiagokoa eta integratzaileagoa den numeriko batera buruz. Ekonomia goi-mailako irakaskuntzarekin eta ikerketarekin lotzen duen bide orri anbiziotsu honen bidez, berrikuntzaren eta elkarlanaren aldeko apustua egiten dugu, epe luzerako ikuspegi batean. Elkarrekin, Ipar Euskal Herriaren itxurako numerikoa egin dezakegu, hau da, numeriko baliosa eta errespetuzkoa.

Numeriko iraunkorra eta helgarria sustatzea; horra Euskal Hirigune Elkargoak lurraldearentzat altxatu nahi duen zinezko desafioa. Izan ere, beharrezkoa zen sail horretako formakuntza eskaintza eta ikusgarritasuna indartzea. Horixe da, hain zuzen ere, Numerikoaren Ingeniari Eskola sortzeko proiektuaren helburua, Estatuaren eta Eskualdearen arteko 2021-2027ko Plan-Kontratuan horretarako esleitutako finantzamenduari esker. Euskal Hirigune Elkargoak ere bere diru laguntza eman dio proiektu honi, eta, hala, erakutsi du etorkizun oneko gai bati buruzko ingeniarien formakuntza publiko berri bat proposatu nahi duela. Horretaz haratago, numerikoaren bide orri hau garapen ekonomikoarekin batera eraiki da, baina baita goi-mailako irakaskuntzarekin eta ikerketarekin ere. Ipar Euskal Herriko gure ikasle eta enpresentzako, eskualdeko testuinguruaz gainera, estatukoa eta nazioartekoa ere bada, eta xedea da lurraldearen eraldaketa numerikoa abiatzea, etengabe aldatzen ari den mundu honetan lehiakorrak izaten jarraitzeko.

Jean-Pierre Laflaquière lehendakariordea, Goi-mailako irakaskuntza, ikerketa eta formakuntzaren arduraduna

SAR-HITZAK

numerikoa Ipar Euskal Herrian, zenbakiak




Sail dibertsifikatua, eragile zorrotzak eta merkatu-hobiak

Numeriko sailean, enpresen sorkuntza-kopurua azkarki emendatu da 2016tik. Enpresa horiek –batez ere merkatu-hobietan kokatutako enpresa ttipi eta ertainek– era askotako lanbideak barne hartzen dituzte: programa-editoreak, web-agentziak, zerbitzu numerikoen enpresak, adimen artifizialaren, blockchain-aren, zibersegurtasunaren edo gauzen Internet-aren espezialistak...

Ipar Euskal Herriko numeriko saileko enpresen banaketa

Euskal kostaldea-Aturri
%81



Hego Lapurdi
%9



Errobi
%5



Errobi-Aturri
%2



Hazparnealdea
%1



Xiberoa
%1



Bidaxunealdea
%1



Ipar Euskal Herriko Teknopoloren gune historikoa hogeita hamar urtez garatzearen ondorioz, numerikoaren eragile gehienak Euskal kostaldea - Aturriko sektorean kokatzen dira egun (% 81), batez ere Bidarteko Izarbel polo teknologikoan. Izarbelek biltzen ditu ekosistemaren ehun enpresa baino gehiago eta funtsezko eragile gehienak, hala nola Pays Basque Digital klusterra edo French Tech Pays Basque komunitatea.

Numerikoaren sare ekonomiko horrek **Akitania Berriko elkargoen laugarren postuan** kokatzen du Ipar Euskal Herria lanpostu-kopuruari dagokionez, eta bigarren postuan enplegatzaile-kopuruari dagokionez.

Numeriko saileko

115

enpresa Ipar
Euskal Herrian


1000

soldatapeko langile
baino gehiago


115

milioi euroko
urteko negozio
zenbatekoa

Enpresen sorrera-data



Enpresen proportzioa, enpresa-motaren arabera



Goi-mailako formakuntza-eskaintza


Goi-mailako irakaskuntza eta ikerketa funtsezko osagaiak dira numeriko sailean; izan ere, etengabeko berrikuntzak sustatzea da bere zeregina.

24

formakuntza daude Ipar Euskal Herrian (17 hasierako formakuntza eta 7 etengabeko formakuntza) goi-mailako teknikari brebeta, teknologiako unibertsitate-gradua, lizentzia eta masterra

Garatzen ari den ikerketagaitasuna

Ikerketa alorrean, numerikoaren erronkek **131 ikertzaile akademiko mobilizatzen dituzte Ipar Euskal Herrian** (irakasle-ikertzaileak, doktoregaiak eta doktoretza ondokoak), eta ikertzaile haiek lurraldeko hiru ikerketa sailetan egiten dute lan.




Datuen kudeaketatik trantsiziorako numerikoaren erabileretara, laborategi horiek modelizazioa egiteko simulazio-tresnak beharrezkoak dituzten lanak egiten dituzte. Azkenik, ESTIA eta UPPAn, 6 ikerketa-katedra bideratuta daude numerikoarekin zerikusia duten gaietara.

NUMERIKOAREN ABANTAILAK LURRALDERAKO

Izarbel, polo teknologiko
aitzindaria.

1980ko hamarkadaren amaieran sortu zen, bertako eragileek Ipar Euskal Herrian informatika garatu nahi zutelako. Izarbel polo teknologikoa numeriko sailaren gaur egungo sistemaren bihotz historikoa da. Garaian egin zen apustuari esker –hots, Bidarten, leku berean, ESTIA ingeniari eskola, startup batzuk, zenbait enpresa nagusi eta ikerlari batzuk biltzea–, numeriko sailerako zentralitate bat sortu da, eragileentzako topaleku bat eta bertan garatutako berrikuntzetarako erakusleiho bat. Izarbelekin –“Izarbel teknopoloa” izenez ere ezagutua denak– beste sail eta beste polo teknologiko batzuetarako ikuspegi orokor bat ekarri du: Ipar Euskal Herriko Teknopoloa.



numerikorako ekintza-PlanA

Ipar Euskal Herrian, jendeak nahi du numerikoa erronka sozial handien eta erabilera berrien zerbitzura izan dadin. Horretarako, Euskal Hirigune Elkargoaren helburuak dira sektorea trinkotu eta egituratzea, biharko talentu berriak formatzea, berrikuntzak egitea eta numeriko arduratsu baten inguruan eragileak federatzea.

1. ANBIZIOA

Ekonomia egitura trinkotzea lurralde osoan eta bere ospea emendatzea

Ekintzaitza izatea numeriko sailaren garapenaren akuilatzailea

Enpresa ttipi eta ertainek osatzen dute, merkatu-hobietako eragile aditu batzuekin batera, Ipar Euskal Herriko numeriko sailaren ekosistema. Lanbide asko barne hartzen dituzte enpresa horiek.

Baina, Ipar Euskal Herriko numerikoaren ekosistema indartu behar da, gaitasun berri batzuk erakartzeko, lankidetzak garatzeko eta berrikuntzak merkaturatzeko. Ekosistema hori indartu eta lurraldean enpleguak sortzeko, Euskal Hirigune Elkargoak egun diren enpresak sostengatzeko eta enpresa berriak instalatzen laguntzeko asmoa du.

Ipar Euskal Herri osoan numerikoan diharduten enpresei harrera egiteko gune berriak garatzea

Bidarteko Izarbel polo teknologikoa erreferentziatzeko lekua da gaur egun numerikoan diharduten Ipar Euskal Herriko enpresentzat. Euskal Hirigune Elkargoak lekuaren bilakaera ona laguntzeko engaiamendua hartzen du, eta, gainera, harrera-gune berriak garatzea aurreikusten du, lurralde osoak saileko enpresei ingurumen egokia proposa diezaien eta, aldi berean, sare-dinamika bat sor dadin.

Eragileen iritzia:

“Azpiegitura egokituak eta bizi ingurumen ona bateratuz gero, bada hor talentuak loratzeko leku egokia garatzeko parada”.

Funtsezko ekintzak:

- **Egun lurraldean diren eta numerikoan diharduten enpresei beren garapenean laguntzea**, haiek tamaina kritikoa lortu arte.
- **Saileko enpresa berritzaile berriak sortzen laguntzea.**
- **Numerikoan diharduten enpresak erakartzea**, Ipar Euskal Herrian modu iraunkorrean instala daitezten.

Funtsezko ekintzak:

- **Izarbel 2 antolamendu-proiektu handia** abian jartzea, Izarbelgo polo teknologikoa beste 20 hektareatan zabaltzeko.
- **Ipar Euskal Herri barnealdean enpresak hartzeko gune eta modalitate berriak garatzea**, mintegien eta “hirugarren espazioen” sare batean oinarrituz.
- **Numeriko saileko enpresen instalazioa eta garapena** erraztea lurralde osoan.

2. ANBIZIOA

Goi-mailako gaitasunak dituzten talentuak formatzea, lurraldearen etorkizun ona prestatzeko

Numerikoari buruzko formakuntza aberatsa eta eskuragarria eskaintzea

Numerikoaren erabileraren eta teknologien bat-bateko emendatzea gertatu da, ingeniari eskasia dago, batxiler diplomadunen kopurua handitu da eta abar. Erronka guzi horien aitzinean, proiektuak sortu dira, hala nola Ipar Euskal Herrian numerikoaren ingeniari eskola publiko bat sortzea edo batxilergoa +3rainoko formakuntza-ibilbideak garatzea.

Euskal Hirigune Elkargoak ikasketa-ibilbide berri horiek garatzen lagunduko du, numerikoari dagokionez formakuntza publiko aberatsa, lurralde osokoa eta koherentea eskaintzeko.

Formakuntza-ibilbideen eta enpresa-munduaren artean zubiak sortzea

Formakuntzak aurreikusi behar dituen numerikoaren bilakaerak, ezinbestekoa da enpresak inplikatzeko formakuntza-ibilbideetan, aldizkako formakuntza lehenestea eta ikasleen ekintzaitzeta sustatzea.



Eragileen iritzia:

“Numerikoaren arkitektoak formatu eta diplomatu nahi ditugu, numerikoaren erronkez eta eraginez ohartzen direnak, garatutako produktu edo zerbitzuaz baino ikuspegi zabalagoa ukaiteko gai direnak”.

Funtsezko ekintzak:

- **Ipar Euskal Herriko ISANUM numerikoaren ingeniari eskola publiko sortzea**, ISABTP-en ereduari –5 urtean formatutako eraikuntza eta herri-lanetako ingeniari eskola– eta Angelun dauden formakuntzetan oinarrituz (Informatikako lizentzia eta masterreko ibilbidea).
- **Formakuntza eskaintza indartzea batxilergotik batxilergo +3raino**, aldizkako formakuntza sustatuz, lurralde osoan, hots, Ipar Euskal Herri barnealdeko lizeo profesional eta orokorretan ere.

Funtsezko ekintzak:

- **Goi-mailako ikastetxeen eta tokiko enpresen arteko lankidetzak** ahalbidetuko duten instantziak sortzea, formakuntza-ibilbideak sortu, finkatu eta garatzeko.
- **Ikasleen ekintzaitzeta sustatzea** lurraldeko goi-mailako ikastetxeetan eta formakuntza-ibilbidean ekiteko aukerak indartzea.
- **Lanbide heziketako formakuntzen garapena laguntzea**, zeinak lurraldeko formakuntza publikoaren eskaintzaren osagarri baitira.

3. ANBIZIOA

Berrikuntzak egitea, gizarte mailako erronkei erantzuten dien numerikoaren inguruko ikerketaren bidez

Numerikoari eta bere eraginei buruzko ezagutza bermatzea, ikerketa sendo baten bidez

Numerikoak arduratsuagoa, baliagarriagoa eta xuhurragoa izan behar du. Alta, ikerketari ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen. Hori dela eta, Euskal Hirigune Elkargoak ikerketa-dinamikari lagundu nahi dio, numeriko arduratsuari buruzko ikerketa-proiektu edo -katedretarako deialdiak eginez. Halaber, Akitania Berria Eskualdeak bezala, xuhurragoa eta trantsizioen zerbitzura dagoen numerikoari dagozkion ezagutza eta proiektu berritzaileak garatu nahi ditu.

Eragileen iritzia:

“Numerikoaren erronkak ez dira teknologikoak soilik; gizakiaren eta teknologiaren arteko mugan daude. Ez da teknologiarik asmatu behar teknologia egiteko xede bakarrekin, baizik eta gizakiak hobeki sentitzeko helburuarekin”.

Lankidetzaren dinamika bat sustatzea, berrikuntza bultzatzeko


Euskal Hirigune Elkargoak inbertitu nahi du eragile akademikoak biltzen dituzten tresnetan, partaidetza publiko-privatuak sorrarazteko (industria-katedrak, topaketak, elkarlaneko ikerketa-proiektuen finantzaketa).

Eragileen iritzia:

“Gauzak zinez aldatu nahi badira, eragileak hemen berean bildu behar dira”.

Funtsezko ekintzak:

- **UPPAren informatika-laborategia (LIUPPA) indartzen laguntzea** eta LIUPPAk ikerketa alorrean duen ezagutza hobetzen laguntzea.
- **Talentuak erakartzea**, ikerketa-gai berriak aztertzeko.



Funtsezko ekintzak:

- **Ikerketarako elkarlaneko erakunde bat sortzen laguntzea**, lurralde osoan.
- **Elkarlaneko proiektuak eta partaidetza publiko-privatuak sustatzea**.



4. ANBIZIOA

Ekosistema espezializatuak egituratzea, trantsizioen eta bizimodu berrien zerbitzura dagoen numerikoa garatzeko

Lurraldeko bikaintasun sailen zerbitzura dagoen numerikoa garatzea

Zenbait sailek, hala nola industriak edo eraikuntzak, numerikoaren teknologien ekarpenari esker, produktibitate, berrikuntza eta karbono-neurritasun handiagoa dute gaur egun. Ipar Euskal Herriko Teknopoloko harremanetan jarri behar ditu numeriko sailaren eragileak eta bikaintasun sail horietako eragileak, etorkizuneko bilakaera teknologikoak aurreikusteko.

Lurraldean agertzen ari diren bi sail berritzaile garatzea: osasunaren zerbitzura dagoen numerikoa eta industria sortzaileen zerbitzura dagoen numerikoa.

Numerikoak bultzatutako teknologia berriek, hala nola adimen artifizialak, medikuntza berri baterako bidea irekitzen dute.

Sophia Genetics enpresa Izarbelen plantatu ondoan, ikerketa- eta berrikuntza-ekosistema oso bat ager daiteke. Era berean, animazio zinema edo ikus-entzunezko produkzio alorrean teknologia numerikoak garatzen ari direnez, Euskal Hirigune Elkargoa gune berriak sortzeko aukera aztertzen ari da, industria sortzaile eta berritzaileen ekosistema bat sortzeko.

Eragileen iritzia:

“Bada ere etorkizun oneko sailen alde kokatzearen beharra –hala nola osasunarena–, zeinentzat jadanik dinamika bizia sentitzen baita”.

Funtsezko ekintzak:

- **Elkarlanak sortzea** “Aeronautika, robotika, material aurreratuak” eta “Eraikuntza eta antolamendu iraunkorrak” sailen eta Ipar Euskal Herriko Teknopolokoaren baitako numerikoaren ekosistemaren artean.
- **Bikaintasun sail horien zerbitzuko ikerketa numerikoa indartzea**, trantsizioei laguntzeko.
- **Bikaintasun sail horiekin lotutako formakuntza-ibilbide espezializatuak garatzea.**

Funtsezko ekintzak:

- **Numeriko sortzailearen ekosistema bat egituratzen laguntzea**, kultura- eta sorkuntza-industrien gune bat garatuz.
- **Osasunaren eta medikuntza-teknologien industria bat garatzen laguntzea**, Izarbelen Osasunaren eta medikuntza-teknologien industrien gune berezi bat antolatuz.



5. ANBIZIOA

Biharko numerikoaz gogoetatzea eta sailaren trantsizio handiak aurreikustea

Ipar Euskal Herrian numerikoaren ekosistema biziartzea eta numerikoaren epe luzerako ikuspegiaren eragitea

Numerikoa ardurenean enpresa erraldoi batzuek ekoizten duten mundu honetan, eta multinazional horiek ia monopolio-posizioan daudelarik, Ipar Euskal Herriko numeriko saila lankidetzatza-logika baten bidez baizik ez da garatu eta zabaltzen ahaliko.



Funtsezko ekintzak:

- **Ekosistemaren baitan elkarlaneko giroa sustatzea**, eragileen arteko topaketak errazteko, batez ere enpresa munduaren eta eremu akademikoaren artekoak.
- Numerikoari buruzko **ikerketatza-ikuspegi bat elikatzea**, ekosistemarentzako hitzordu nagusiak antolatuz lurralde osoan.
- Tokiko eragileak bultzatzea **datuak hemen ostatatze**ko inbertitzera eta **Frantziako hornitzaileekin lan egitera**.

Numeriko arduratsuego baterantzko norabidea hartzea

Numerikoaren eragina ingurumenean, gaur egun berotegi-efektuko gasen emisioen % 3,8 dena, kezka iturri nagusia bihurtu da egun. Zerbitzu numerikoen eskuragarritasuna ere gai garrantzitsua da. Azkenik, sailaren feminizazioa berdintasunaren eta lehiakortasunaren aldeko erronka nagusia da.




Funtsezko ekintzak:

- Numeriko saileko enpresei banaka laguntzea **numeriko arduratsuego baterantzko norabidean**, hau da, kontzientzia hartze hutsetik ekintza konkretuak plantan ezartzera.
- **Ekosistemaren baitan numeriko arduratsuen inguruko dinamika kolektiboa bultzatu eta animatzea**, eragileak hobe daitezzen beren egin-molde eta lanbideetan.
- **Trantsizio ekologikoaren zerbitzura dagoen numeriko "baliagarri"** baten garapenean lan egitea.
- Sailaren **feminizazioaren erronkaz jabetzea**, bai formakuntzan bai enpresetan.

Eragileen iritzia:

“Eragileen arteko lankidetzatza berrmatuko duen erakundea behar dugu, bitartekari moduko bat”.



eRAGILEen POTREtAK

PAYS BASQUE DIGITAL KLUSTERRA

Tokiko ekosistema animatzeko
funtsezko eragilea

Izarbelgo Enpresen Klubaren ekimenez sortu zen 2015ean Pays Basque Digital klusterra. Gaur egun hirurogei bat kide biltzen ditu (programa-editoreak, zerbitzu-integratzaileak, segurtasuneko espezialistak, datu-zentroak, web-agentziak, pure player-ak, adimen artifizialaren edo objektu konektatuen arloan diharduten enpresak). Kide horiei zerbitzu eskaintza zabala egiten die, eragileen arteko lankidetzeta eta sinergia sustatzeko, sailaren egoera eta ospea indartzeko, soldatapeko langileek gaitasun gehiago ukaiteko eta biharko talentuak erakarri eta kontratatuzeko.

Pays Basque Digital klusterraren helburua da lurraldeko enpresen

lehiakortasuna hobetzea, eragile guziekin (instituzionalak, pribatuak, publikoak...) elkarlanean ari izanez, hainbat arlotan eta kideen beharretatik ahal bezain hurbil:

- Ipar Euskal Herrian plantatuak diren enpresen bikaintasuna eta sinesgarritasuna nabarmentzea;
- gaitasunak egokitzea bilakaera teknologikoetara, kolaboratzaileen formakuntzaren bidez;
- enpresaburuak sentsibilizatzea sektorearen erronkei buruz, hala nola numeriko arduratsuari edo zibersegurtasunari buruz;
- lurraldeko eragileei laguntzea sailaren bilakaera ulertzen.



ERNESTO EXPOSITO

UPPAko Informatika saileko
arduraduna (Montori gunea)

Azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak azkar garatzearen ondorioz, gure gizartean iraultza numeriko handia gertatu da, eta horrek barne hartu ditu gure industriak, enpresak eta era guztietako erakunde publiko eta pribatuak ere, hemen berean, eskualdean, estatuan eta nazioartean.

Aldaketa horrek eragindako gaitasun numeriko berriak ulertu eta menperatzeko, eta adimen artifizialak eskaintzen dituen aukera guztiak erabili ahal izateko, informatikako ingeniarien bost urteko etorkizuneko formakuntzak aukera emango du 2024ko ikasturte sartzetik beretik espezialitateari dagozkion gaitasunez jabetzea lehen urtean, ikerketari eta berrikuntzari irekiz, enpresen munduaren, gizartearen eta nazioarteko erronkei erantzunen dieten arazo eta proiektuen arabera pedagogia aktiboa erabiliz.

“Berrikuntza numerikoak irakaskuntzan integratu behar dira, gaur egungo ikasleen eskaera berriei hobeki erantzun ahal izateko, eta horixe da, hain zuzen ere, ISANUM izeneko numerikoaren ingeniari eskolaren helburua”.



MAXSEA

Itsasoko asmatzailea eta liderra

MAXSEA enpresa duela 30 urte sortu zuen Brice Pryszo ontzi-arkitekto eta informatika zale errabiatua den itsasgizonak. Gaur egun, MAXSEA INTERNATIONAL munduko liderra da itsas nabigaziorako softwarean (laket itsasketa, arrantza profesionala, merkataritza-ontziak, itsas zabaleko lasterketak). Gaur egun, mundu osoko 100.000 ontzik baino gehiagok dituzte TIMEZERO gamako programa informatikoak, baita Itsas Segurtasuneko hainbat zentrok ere. Enpresak 70 pertsona inguru kontratatzen ditu, batez ere Izarbel polo teknologikoan, baina baita AEBetan eta Espainian ere. Eta mundu osoan dago, bere banaketasare paregabea eta FURUNO izeneko bere partaide nagusiari esker.

Horregatik garatu du MAPMEDIA ere, mundu osoan hiru dimentsioko 6.000 mapa baino gehiago dituen itsas kartografia numerikoko zerbitzua.



euskal HIRIGUNE ELKARGOAREN PROIEKTU Handiak

Bide orriaren ardatz nagusiei erantzunez, zenbait proiektu egituratzaile martxan jarri dira edo martxan jartzekotan dira formakuntza-eskaintza garatzeko, ekosistema espezializatuak egituratzeko, enpresak hartzeko eta numeriko arduratsu bateranzko norabidea hartzeko. Gain soako bat:

ISANUM

ISANUM Angelun UPPAK ISABTP-en ereduari bultzatzen duen numerikoaren ingeniari eskola bat sortzeko proiektua da. Ikastetxe publiko honek formakuntza eta ikerketa bateratuko ditu, arazo eta proiektuen araberako pedagogia aktiboa erabiliz eta enpresen munduaren, gizartearen eta nazioarteko erronkei buruzko ibilbideen bidez.

ZENBAIT DATU

Obralaritza aukeratzeko deialdia 2023an

Kostua: 10 milioi euro (zergarik gabe)

Finantzatzaileak: Euskal Hirigune Elkargoa – EGEF – Frantziako Estaturia – Akitania Berria Eskualdea

Formakuntzaren hasiera: 2024ko iraila

Eraikinaren obren bururatzea: 2026ko ikasturte sartzeara

Partaideak: UPPA – Angeluko Herriko Etxea – Akitania Berria Eskualdea

LAMINAK

LAMINAK numeriko sortzailearen polo teknologiko bat sortzeko proiektua da, eta teknologiaren eta kulturaren bidegurutzean dagoen ekosistema bat egituratzea du helburu. Guneak baditu Bidarrain, Izarbelen eta Urruñan, eta baita baliabide-zentro dedikatu bat ere. LAMINAK-ek harremanetan jarri nahi ditu lurraldeko eragileak eta guneak, haietan formakuntzako eta ikerketako eragileak.

ZENBAIT DATU

Abiatzea 2023an

Finantzatzaileak: Euskal Hirigune Elkargoa – France Relance 2030

Partaideak: Biarritzeko Herriko Etxea – Bidarteko Herriko Etxea – Bidarraiko Herriko Etxea – Urruñako Herriko Etxea – Euskal Elkargoko Goi-mailako Arte Eskola – André Malraux lizeoa – Baiona eta Ipar Euskal Herriko teknologiako unibertsitate institutua – René-Cassin lizeoa – ESTIA – enpresak eta startup-ak.

IZARBEL 2

Ipar Euskal Herriaren erakusleihu ekonomikoa eta teknologia numerikoen emulaziorako tokia, Izarbel polo teknologikoaren hedapena, hots, Izarbel 2, eredugarria izan nahi duen hiri-proiektua da. 20 hektareatik gorako antolamendu-proiektu honen helburua da egungo eta etorkizuneko eragile ekonomiko eta akademiko guziak hartzea eta federatzea, hiriarekin eta bere lurraldearekin konektatutako campus-eredu ireki batean, egungo eta etorkizuneko erabilerekin harmonian.

ZENBAIT DATU

Abiatzea 2023an

Finantzatzailea: Euskal Hirigune Elkargoa

Partaidea: Bidarteko Herriko Etxea

LEHIAKORTASUN-POLOA NUMERIKO ARDURATSUA

Akitania Berrian, numeriko arduratsuari buruzko lehiakortasun-polo bat sor liteke. Polo horrek eragile ekonomikoak, ikerketakoak eta formakuntzakoak bilduko lituzke, numeriko xuhurragoaren (diseinu ekologikoa, eraginenen ebaluazioa, materialen birziklatzea) eta trantsizioaren zerbitzura dagoen numerikoaren inguruan (agroekologia, energia-trantsizioa, karbono gutxiko ekonomia, mugikortasun-trantsizioa). Euskal Hirigune Elkargoak ekimen honen alde egiten du eta nahi du lurraldeko eragileak ekimen honen partalier izan daitezen.

ZENBAIT DATU


Hautagaitza txostenen aurkezlea: Akitania Berria Eskualdea

Finantzatzailea: Akitania Berria Eskualdea





Euskal Hirigune Elkargoa
Garapen Ekonomikoaren Zuzendaritza
deveco@communaute-paysbasque.fr





SK pays
Basque
euskaL
HERRIA

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE
ELKARGOA

“

1